

→ KANALAK

Komunikazio kanalei dagokionez honako hauek izango dira.

1. Bezeroekiko komunikazioa:

Hasteko deialdi bat egingo diogu arropa dendei gure proiektuaren berri izan dezaten. Ondoren, dendaz-denda joango gara gure produktua saltzen, horrela edozein zalantza galdetzeko aukera izango dute eta pertsona batekin hitz egitean proiektua erakargarriagoa bihurtzen da. Aldi berean, herriko dendetan gehiago ahalegintzen saiatuko gara.

2. Produktuaren banaketa:

Produktuaren banaketa ez da beharrezkoa izango, internet bidez joango baita. Dena den, instalaziorako langileak dendetara bidali beharko dira. Langile horiek autoz, bizikletaz edo ibiltzen mugituko dira, distantziaren arabera.

3. Produktuaren salmenta:

Produktuaren salmenta internet bidez izango da.

